

Gernika-Lumoko udako liburutegiaren mailegu kopuruak gora egin du

GERNIKA-LUMO. Udako liburutegiak iaz baino erabiltzaile gehiago izan ditu opor sasoian. Zehazki, liburu zein ikus-entzunezko materialen maileguei dagokienez 'kopuruak gora egin du, 2009ko 1.322 maileguetatik 1.404 dokumentu mailegatueta pasatu baikara', adierazi dute arduradunek. 'Batez ere, helduen artean gertatu da mailegu gorakada handiena', azpimarratu dute. Bestalde, 'hilabeteko epean 59 erabiltzaile berrik eman dute alta liburutegian'. Datuak eskutan izanda, beraz, Kultur Etxe atariko arkupeetan koka-tzen den Udako Liburutegiaren balorazioa positiboa izan da.

Maileguez gain, lehenengo aldiz, umeei zuzendutako lau tailer mota antolatu ditu udako liburutegiak. 'Tailer guztiak literatura eta ipuingintzarekin zuzenean erlazionaturik egon dira eta parte hartu dutenen sorkuntza eta irudimena zabaltzera bideratu nahi izan ditugu'. Osotara, 113 umek parte hartu dute tailerretan, orokorrean 'oso pozik' agertu direlarik antolatzaileak gernikarrek egindako harrerarekin.